

Aldaketak nabari dira Udal berrian

- Eskuzabaltasuna eta parte hartzeari bultzada izan ziren lehen osoko bilkuraren ezaugarri nagusi
- Alkate eta zinegotzien soldatak %25ean jaitsi dituzte
- Nagusiki euskaraz burutu zen batzarra
- Gobernu batzordean Bilduko kideak daude soilik
- Oposizioko PSE-EEK liberatu bat izango du

Aldaketak sumatzen hasi dira Lasarte-Oriako Udalean gehienbat euskaraz egin zen lehen osoko bilkuratik. Aipagarria da Bilduko ordezkariak erakutsi zuten eskuzabaltasuna, hauteskunde emaitzei errespetua eta herritarrei zein Udaleko beste alderdietako zinegotziei parte hartzeko atek ireki dizkiotela.

Gobernu batzordean Bildu bakarrik egongo da, EAJ eta Plataformak ez egotea erabaki dutelako, bestalde alkateak proposatuta, Udaleko batzordetan PSE-EEK hiru ordezkari eta zazpi boto izango ditu, Bilduk bi ordezkari eta 5 boto, EAJ eta Plataformak ordezkari bana eta bina boto eta PPko ordezkariak boto bat izango du.

Gainera, 246.000 euro baino gehiago aurreztuko du udal berriak karguak ezabatuta eta soldatak jaitsita. Aurreko legegaldian PSE-EEK bost konfiantzako kargu izatetik konfiantzako kargu bakarra izatera pasatuko da Bilduk zuzentzen duen Udala, eta lehen sei politikari liberatuak PSE-EEK zituen bitartean, orain hobeto banatu dira, lau Bildukoak izango dira, lau PNVkoa eta PSOEek oposi-



Astearte arratsaldeko udal batzarrean euskaraz egin zuten Bilduko ordezkariak.

zioan egon arren bere liberatua izango du lan hori betetzeko.

Udal berriaren lehen bileran ikusi den beste aldaketa bat parte hartzeari bultzada izan da, parte hartze batzordea sortu baita, Bilduko Alaitz Mendizabal-en ardurapean, herritarrek Udal ordezkariengana hurbiltzeko helburuarekin. Gainera, herritarren parte hartzea errazteko Udal batzarrek arratsaldez egingo dira eta jada lehen batzarrean lehen baino herritar gehiago izan ziren.

Osoko bilkurak hileko bigarren asteartean arratsaldeko 18:30ean egitea erabaki zuten astearteko bileran Bildu, EAJ eta Plataformaren aldeko boto, PSE-EEren abstentzio eta PPren aurkako botoarekin.

PSEko Jesus Zaballos-ek esan zuen asteartean bezala urte osoan herritarrek batzar aretoan izatea espero zuela eta PPko Vanesa Velez-i ere ondo iruditzen zaio aldaketa parte hartzea bultzatzeko bada.

Aurreko akta onartu eta gero, Gobernu Batzordea osatu eta alkateordeak izendatu ziren astearteko udal batzarrean. Alkatearekin batera, Nerea Sanchez, Gorka Lizarraga, Alaitz Mendizabal eta Taxio Arrizabalaga izango dira udal gobernuan eta eurak izango dira lau alkate ordeak hurrenez hurren.

Plataformak argi utzi du, Pablo Barrio alkate izendatu bai baina ez duela Gobernuan sartu nahi. EAJk aldiz, momentuz, ez parte hartzea erabaki du

eta aurrerago berriro aztertzea.

Ondoren, berriro PSE-EEren abstentzioarekin, batzordetako lehendakariak izendatu zituzten: Bilduko Nerea Sanchez Hirigintza eta Ingurugiroa, Merkataritza eta Osasuna; Gorka Lizarraga, Ongizatea, Inmigrazioa, Kooperazioa eta Emakumea; Pablo Barrio alkate Pertsonala eta Barne Auzidua; Taxio Arrizabalaga Gazteria, Festak eta Kirolak; eta Alaitz Mendizabal Parte-Hartze batzordean; EAJko Esti-txu Alkorta Ogasuna eta Boris Nogales Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordean eta azkenik Plataformako Ana Isabel Prieto arduratuko da Lanak eta Zerbitzu Publikoak batzordean. Ondoren, Añabe, Behe-mendi, San Marcos eta herriko eskoletako kontseiluetako ordezkariak aukeratu zituzten.

Azkenik, orain arte Gobernu batzordean hartzen ziren erabakiak osoko bilkuretara eramatea onartu zen eta baita liberatuak banatzeko alkatearen proposamena ere, hau da, bera bane sei izango dira, Bilduko hiru kide egun osoz, bi egun erdiz, eta PNVk zein PSE-EEK liberatu bana izango dute. •



Bilduk eta EAJk negoziaketa argitu eta hainbat azalpen eman zituzten prentsaurrekoan /3



Aisa programako irakaslearekin, Petra Elser-ekin eta ikasleekin egon gara /4-5

KIROLA /6

Urtzi Telleria harrijasotzailea hirugarren izan zen Harri Txikien Gipuzkoako Txapelketan



txintxarro

erretegia

Etorri, probatu eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Berria!

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak
Bataioak

Familiarteko bazkariak

.....

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

Neure kabuz



Aguuur...

Agur esateko ordua iritsi da, bai. Badira bi urte Txintxarriko lagunengonbidapenari kasu egin eta txoko honetan idazten hasi nintzenetik. Ia konturatu gabe, hogeita zutabe. Langintza polita, zalan-tzarik ez. Luxua, egia esan, barruan duzuna komunikatzeke hau bezalako aukera izatea.

Forma zaintzen saiatu naiz eta zorrotza izaten ere bai; umore puntu batekin beti ere, umorea baino botika hobea ez da baitago bizitzak sortzen dituen ubeldurei aurre egiteko. Noraino asmatu dudan ez dut nik esan behar. Inportanteena niretzat esperientzia bera izan da, polita, asko ikastekoa.

Eta horrela bizi izan naiz lasai, idazteak berekin daraman, nire kasuan behintzat, bizimodu baretu, isil, ordenatu, barmekoian.... Baina, bat-batean, pikutara dena! Goitik behera aldatu egin zait bizimodua! Ez dakit metafora egokia den baina ura ginebra bilakatu da, nolabait esateko. Bilakatu zait, hobe esan. Ulertzen da, ezta? Mozkorraldia orain. Tsunami. Baretua zena bileratsua da orain, ordena kaos hutsa, isiltasuna zarata eta harreman pila, barne mundua... uf, nola esan, eskaparatean nago orain.

Beste leku batean egin behar dut lana datozen lau urteetan. Erroka polita hau ere, dudarik gabe, une honetan zutabegintza albo batera uztea eskatzen didana. Banoa, beraz. Banoa... baina horixe egingo naiz beti.

Plazerra izan da.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Xabier eta Gaizka

Zorionak bikote 6. eta 3. urtebetzean! Famili guztiaren partetik!



Oier

Zorionak eta txokolatezko 4 muxu pottolo familiaren partetik. Ondo pasa, Maritomas!



Udane

Zorionak eta txokolatezko lau muxu etxekoien partetik.



Xabi

Zorionak eta txokolatezko hiru muxu handi familiaren partetik.



June

Zorionak Pitxitxi. Enara, aita eta amaren partetik.



Lide

Zorionak polita, besarkada handi bat eta 8 muxu etxekoien partetik.



June

Zorionak pottoki, Markel eta familiaren partetik. Txokolatezko bost muxu.



June

Zorionak 'ranita' zure I. urtebetetzean aita-txo, amatxo eta familiaren partetik. Muxuak!!



Oier

Zorionak zure 4. urtebetetzean Muxu handi bat aita-txo, amatxo eta Noraren partetik.



Irati

Zorionak bihotza. 6 muxu pottolo amatxo eta familiaren partetik. Oso ondo pasa!!



Goreti

Zorionak etxeko printsesari zure hirugarren urtebetetzean familia guztiaren partetik.



Saioa

Zorionak zure 5. urtebetetzean. 5.000



Eider

Zorionak Pi!! Ondo pasa bombon! Katxipiruletazko muxuak!!!!

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Jakan apartamentua alokatzen da udaran. 2 gela, garajea eta ige-rilekua ditu. Tel.: 639 659 583.
- Garaje plaza eder bat alokatzen dugu Atsobakarren. Tel.: 943 376115, Marisol.
- Garajeko marra bat alokatzen da Atsobakarren. Tel.: 648 614 769.
- Etxe bat alokairuan hartuko nuke Lasarte-Orian. 667 808 934 M.Afzaal

Salerosketak

- Korrika egiteko makina salgai. Domyos TF 160 modeloa. Azaroa arte garantian. Prezioa 150 euro. Interesatuta dagoena 633 710503 telefono zenbakira deitu dezala.
- Txirringan haurra eramateko aukila eta kaskoa erosiko nituzke. Harremanetarako: 685 755 109.

Lan-eskaiztak

• Euskaraz dakien neska bat behar dugu irailetik aurrera bi haur zaintzeko (17:00-20:00). Tel.: 685 751268.

Lan-eskariak

- Emakume bat goi-mailako frantzesearekin haurrei-helduei eta enpresetan klaseak emateko eskaizten da. Itzulpenak ere egingo ditu. Telefono: 680581914 / 943372748.
- Lasarte-Oriako neska gazte batek lana egingo luke abuztuan umeak zaintzen tel.: 677823141.
- Neska bat eskaizten da garbiketarako lanetarako, haurrak edo helduak zaintzeko. Tel.: 629 408 227.
- Edozein lan egingo nuke, ahal bada publizitate banaketan 667 808 934 M.Afzaal
- Neska bat eskaizten da lanerako: adinduak eta haurrak zaintzen, etxeak garbitzen edo beste edozein lan. Tel.: 943 365149.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Jaiotzak

- Aitor Martin Pérez, ekainaren 22an
- Aray Carlos Lucas, ekainaren 20an
- Daniel Zubiria Gil, ekainaren 20an
- Lorea Gañan Martín, ekainak 19
- Unax Urdangarin Quintana, ekainaren 17an
- Telmo Martin Beitia, ekainak 15
- Erika Mena García, ekainak 15
- Liher Quintana Irastorza, uztailaren 5ean

Heriotzak

- Catalina Erasquin Gurrutxaga, uztailaren 12an hil zen, 93 urte zituela
- Francisco Vazquez Garay, uztailaren 4an hil zen, 83 urte zituela
- Timoteo Horcajo De Frutos, uztailaren 2an hil zen, 53 urte zituela
- Javi Amador Mijuguez, ekainaren 30ean hil zen, 41 urte zituela
- Julio Igartua Sagarmínaga, ekainaren 27an hil zen, 58 urte zituela
- Agapito San Juan Orío, ekainaren 27an hil zen, 78 urte zituela
- Ignacio Ariztegui Mindeguia, ekainaren 26an hil zen, 73 urte zituela
- Josune Iradi Diaz, ekainaren 19an, 43 urte zituelarik.
- Marcela Matesanz Rojo, ekainaren 17an hil zen 81 urte zituela

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 15**
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 16**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 17**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 18

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 20

Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 21

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Soldata jaitsiz hasi da lanean Bildu

■ Plataforma eta EAJrekin negoziaketa argitu du prentsaurrekoan ■ Lehen erabakia soldatak murriztea eta aholkulariak kentzea izan da ■ Orain urtean 246.290 euro gutxiago gastatuko da

Bilduko alkate eta lau zinegotziek prentsaren aurrean argitu zituzten EAJ eta Plataformarekin Gobernuaren osatzeko izan dituzten hartuemanak eta alkatetzan diren etik hartutako lehen erabakiak. Batetik, herritarren parte-hartzea bultzatzeko batzordea sortu dute Udalean. Bestalde, aurreko alkate eta zinegotziek jasotzen zuten soldata gehiegizkoa irudituz zaie eta hortik hasi dira arrezten. Gainera, lehen bost aholkulari izatetik orain bakarria izatera pasatuko dira. Neurri hauekin urtean 246.290 euro aurreratuko ditu Lasarte-Oriak.

JON ALTUNA

Bilduko Pablo Barrio alkateak, Nerea Sanchez, Gorka Lizarraga, Alaitz Mendizabal eta Tasio Arrizabalaga zinegotziek asteartean jakinarazi zuten krisi garaian gastuen politika zehurrak egingo dutela, eta hasteko udal ordezkarien soldatak jaisteko eta aholkulari karguak kentzeko erabakiaren berri eman zuten. Horrela Pablo Barriok, urtean Jesus Zaballosek baino ia 32.000 euro gutxiago jasoko ditu eta Nerea Sanchez alkateordeak Iñaki Mugicak baino 22.000 euro gutxiago. Udalean lan egingo duten zinegotziek ere askoz gutxiago jasoko dute eta bestalde, lehen PSE-EErekin ziren bost konfiantzako karguak kendu eta bakarria mantenduko da, eta horrela beste 171.364 euro aurreratuko dira.

Udal batzarren ondoren emandako prentsaurrekoan Pablo Barriok Bilduren izenean

zoriendu egin zuen Lasarte-Oriako herria beraiek izan direlako Udalean aldaketa posible egin dutenak. Barrioren iritziz Lasarte-Oriako Bilduren helburu nagusia, sortu zenetik, orain arte Udalean izan den joera eta jokabidea aldatzea izan da, "Udala herritarren bidelagun izan beharrean gainditu beharreko traba edo oztopoa zelako herritar eta herriko elkarteentzat".

Herritarren parte hartzea

Pablo Barriok adierazi zuenez, legealdi honetan Bilduren mugarririk bat parte-hartzearena izango da "Udaleteia herri ekimenen galga izatetik indartzaile izatera pasatzea nahi baitugu". Eta horretarako hartu diren neurrien berri eman zuten asteartean: parte hartzea bultzatuko duen batzorde berria, eta berak dinamizatutako arloko mahaien sorrera, Udaleko Batzorde Informatibo eta Plenoak arra-



Lasarte-Oriako Bilduren bost ordezkariak, astearteko prentsaurrekoan.

tsaldetako 18:30etara pasatzea "herritarren parte-hartzea errazteko" eta auzoetako elkarrekin elkarlanari bultzada "auzoko arazoaren aurrean erantzun egoki eta azkar bat emateko".

Pablo Barriok alkatetzara eraman duen biderearen berri ere eman zuten asteartean eta jakinarazi zuen EAJ eta Plataformak Gobernu Batzordean ez egotea erabaki arren, lau urtetan gobernua babesteko asmoa behin eta berriz adierazi dutela.

Bestalde, hartutako lehen erabakien berri eman zuten Bilduko ordezkariak. Pablo Barriok esan zuenez "Krisi garaian gure gastuen politikak zehurrak izan beharko duela

argi dugu. Alabaina ez ditugu pobrezia murrizten diren laguntzak arinduko, indartu baizik, eta horretarako gehien irabazten ditueni murriztu beharko zaie".

Gehiegizko soldatak

Eta Lasarteko Udalean politikarien soldata hasieratik "gehiegizkoa" izan dela iruditzen zaenez, hortik hasi dute murrizketa: "Aholkulari figura batzuk desagertuko dira eta politikarien soldatak %25ean jaitsiko ditugu oro har".

Horrela, Pablo Barriok, Jesus Zaballosek baino ia 32.000 euro gutxiago jasoko ditu urtean, 72.292 Zaballosek eta 40.640 Barriok, alkateor-

deak 22.000 euro gutxiago, lehen Iñaki Mugicak 56.300 eta orain Nerea Sanchezek 34.093. Zinegotziek ere orain lehen baino askoz gutxiago jasoko dute, lehen 43.160 eta 40.584 artean eta orain egun osoz daudenak 34.093 eta egun erdiz arituko direnak 21.138. Gainera PSE-EE bost aholkulari zituen, bat 53.833 euroko soldatarekin, beste hiru 39.176 eta beste bat 30.141 euroko soldatarekin, eta orain Bilduk izango duen aholkulari bakarrak 30.141 euro jasoko ditu. Beraz, kargutan 201.505 euro gastatuzetik 30.191 eurora murriztuko da gastua, behinik behin, agian Pablo Barriok aurreratu zuenez, posible delako aurrerago beste aholkulariaren bat kontratatzea.

Dena den, momentuz, gutxira 246.290 euro gutxiago erabiliko dira herriko politikarien soldatatan, ehuneko 49 aurreratuko du Udalak, ehuneko 25 udal ordezkarien soldatatan, urtean 74.925 eta ehuneko 85 konfiantzazko karguetan urtean 171.364 euro gutxira.

Gainera aldaketa handi bat emango da lehen aldiz Lasarte-Oriako Udalean, oposizioko alderdi batek liberatu bat izateko aukera izango du, PSE-EE oposizioko talde nagusiak alegia. Pablo Barrioren iritziz, "horrela, Udalak politikari eskola bezala funtzionatuko badu gure lehenengo irakaspena hau izango da".

Aldaketen alde buru belarri aritzeko prest da EAJ

Alkatetzari berriari eusteko EAJk leialtasunez eta buru belarri lan egingo duela adierazi zuten alderdi honetako zinegotziak Estixu Alkorta eta Boris Nogalesek asteartean Udala Batzarren ondoren prentsaren aurrean. Hala ere, gainditu beharreko haserrealdia edo desadostasun txiki edo handiak egongo direla aitortu zuten: "dena den, ona eta beharrezkoa da pazientzia, denbora igarotzen uztea, eta ibilian urratzea bidea".

Plataformak Lasarte-Oriako Gobernuan ez parte hartzeko asmoa jakinarazi zuenetik, hainbat bilera egin zituzten Bildu eta EAJ elkarrekin gobernua osatzeko, baina momentuz Gobernu Batzordean ez egotea erabaki dutela jakinarazi zuten EAJko zinegotziek. "Ondo hausnartu ondoren Bilduri jakinarazi

genion EAJk bi batzorderen ardura hartuko duela, Ogasuna eta Kultura Hezkuntza eta Euskara, baina aldi batean gobernuan sartu gabe" eta aukera hori, gerorako utziko dutela, aurrerago, "eguneroko lanaren ondorioz hiru alderdien arteko funtzionamendua finkatzen denerako". "Erabaki honetan ez da Lasarte-Oriarekin hartu dugun ardura saihesteko asmorik, eta horren adibide da Ogasun Batzordeko lehendakari Estixu Alkorta izan dadin gogor saiatu garelako negoziaketetan" esan zuen Alkorta berak.

Akordioaren ardatzak

Lasarte-Oriako Gobernu aldaketa behar beharrezkoa zela uste du EAJk eta horregatik heldu zen Bildu, EAJ eta Plataformaren arteko akordioa, ekainaren 11n bertan. Alkate-



Boris Nogales eta Estixu Alkorta izango dira Kultura eta Ogasun sailtako buruak.

ren izendapenaren aurretik sinatu zuten 9 puntutako hitzarmenetik zenbait ardatz eta konpromiso nabarmendu zituen Estixu Alkortak asteartean: bakearen eta giza esku-

bideen errespetuaren aldeko gaitasuna; udalaren kudeaketa gaitasuna; behar dutenentzako laguntza sozialei eustea; Udala kontuen auditoria eta soldaten egokitzapena; udala-

ren gastuetan zehurtasuna eta hiru urterako ekonomi plan-gintza (2012an milioi bat euro eta 2013an bi milioi aurrezteko) eta azkenik herritarren parte hartzea bultzatzeko erakunde bereziaren sorrera.

Bildurekin EAJk dituen desadostasunen artean garrantzitsuen hiri hondakinaren tratamendua da, baina alderdi honetako zinegotzien ustez, "adostasun maila handia da", eta ez da arazorik izango, "adostasun zein desadostasunetan leialtasunez lan egingez gero".

Konfiantzarekin aurrera egin beharra aipatu zuen Estixu Alkortak, "helburuak lortzeko gehiengo beharrezkoa da, baina baita hiru alderdien arteko lan leiala, Gobernu honek nahikoa egonkortasun izan dezan".



Igande goizetan Danok Kideko egoitzan biltzen dira herriko etorkin batzuk euskararen nondik-norakoak ikasteko eta euskarari trebatzeko asmoz. Irudian Petra Elser irakaslea.

‘Umeen heziketa sistemaren antzekoa lantzen dugu’

■ Petra Elser alemaniarrak oinarritzko euskara ikasteko metodologia irakatsi digu
■ Etorkinentzako euskararekiko hurbilpen programa garatzen du Aisa programak

Etorkinenak bizitza hobeago baten esperantzaz hurbiltzen dira Euskal Herrira, bizi kalitate eta egonkortasunaren bila. Horien adibide dira Aisa programan parte hartzen duten etorkinak. Batzuk etorri berriak dira, beste batzuk urte ugari daramate gure artean, eta herriaren parte sentitzen dira, baina hutsune bat sumatzen dute, hizkuntza. Gainditu daitekeen oztopoa da hau, eta horregatik euskara ikasteari ekin diote.

ITXASO MORENO

Aisa programa ez da berria, urte batzuk darama gure artean. Eusko Jaureritzak, Lasarte-Oriako Udalak eta Urrats Euskaltegiak abian jarritako programa da. Etorkinek euskarerako hurbilpen bat izan dezaten garatzen duen hizkuntza sistema da. Oinarritzko ikasketak dira, eta gero jarraitu nahi duenak euskaltegietan maila ezberdinetan aritzeko aukera izan dezake.

Lasarte-Oriako Esperanza Latina herriko elkarteak irakatsi duen die igandeko klase hauek aurrera eramanez ahal izateko. Goizetan biltzen dira eta lau orduz euskararen oinarriak ikasten aritzen dira. Hastapeneko kurtsua da,

baina aurten nobedade batekin: Petra Elser eta Arantxa Arriaga irakasleek kurtsu honetan jarri duten irakasteko sistema.

Irakasle alemaniarrak

Petra Elser Aisa programako irakasleak duela zortzi urte finkatu zuen bizilekua Euskal Herrian, Urnietan hain zuten ere. Hala ere, gure herriarekiko haremanak 80ko hamarkadatik luzatzen da. Inor ez da, beraz, Petra bera baino egoikiagoa, etorkinek euren herriatik atera eta beste berri batera iristen direnean zer sentitzen duten ulertzeko.

Petrak bazekien euskaraz Alemaniatik etorri zenean "baina iritsi nintzenean nabaritu nuen gizarte bat partetan banatuta", alde batetik erdarazko hiztunak eta bestetik euskaraz aritzen direnak;

"euskaraz aritzen direnen taldean sartzea zaila izaten da, zuk ez baitakizu euren hizkuntza". Bere kasua ezberdina izan bazen ere "automatikoki ezin zara leku guztietara iritsi eta horregatik sartu nintzen erroka honetan". Garrantzitsutzat jotzen du Petrak bi kulturen uztarketa "programa honi esker zubi lana egiten dugu bi parteak elkar ezagutzeko".

Ikaslearen autonomia

Pasa den igandean Aisako klase batean egon ginen, eta bertan Petra Elser irakasleekin hitz egiteko aukera izan genuen. Aurten ezarri duten sistemaren nondik-norakoak eta abantailak zeintzuk diren jakiteko asmoz.

Ikaslearen autonomia bilatzen duen sistema da ikastaroan erabiltzen dena "egitura erraza biltzen da, ondoren ikasleak hitz gutxi batzuen inguruan esaldiak osatu ahal izateko" dio Elserrek. Hitz

hauek ez dira solte erabakitakoak "eguneroko bizitzarekin lotura izatea eskatzen du". Garrantzitsuenak dira, zer kontatu nahi zuzen eta hori adierazi ahal izatea: "horrek ematen die pausu handiak ematen joateko motibazioa".

Biren harremana

Sistema honen hastapenetan ikaslea eta irakaslearen arteko harremana "bi solakide edo bi lagunaren arteko bezalakoa da". Galdera sinpleekin hasten dira "gure bizitzaren alorrekoak, beraz ez da zertan gramatika taularik ikasi behar".

Sistema honi esker gure egunerokotasunean egiten dugun hori besteak beste kontatzeko aukera eskaintzen zaigu, baina ez dugu euskaraz bere osotasunean ikastea lortuko, horretarako ondoren beste mailatarako ikastaroetan parte hartu beharra dago.

Egitura erraza da Aisak abian jarritako sistema honen oinarria, hitz gutxi batzuekin esaldiak osatu ahal izan dituzten

Herriko elkarte eta etorkinen artean harreman estua sortzea da Aisa programaren beste helburuetako bat

Dut eta duzu

Aditz taulak ikastera behar izan ez duen sistema da hau "dut eta duzu bakarrik erabiltzen ditugu, egin duguna eta egin nahi dugun hori azaltzera ahalbidetzen dizkigutenak". Aipatu badugu hasieran irakasle eta ikaslearen arteko solasaldia dela, ondoren klasekide guztien arteko elkarrizketa biltzen da, horrela pixkanaka askatzen joateko. "Ikasle bakoitzak ahal duen gehiena hitz egin behar du, besteie erraz galdetu eta era berean azalpenak emateko gai izateko".

Sistemaren eratorria

Beti esan ohi izan da euskara ikastea zaila dela, baina badirudi sistema honi esker oinarritzko ezagutzak lortu daitezkeela "beti ere bakoitzak hizkuntza zertarako nahi duen argi daukanean". Ikastaro honetara datozenak ez dute hizkuntza zehatz-mehatz ikasi nahi "ulertu baiziki".

Sistema hau umeen heziketan oinarrituta dago, eskola aurretiko sistemak, alegia, idazten hasi aurreko garaiko heziketan. Umeen kasuan "sistema honen ardatza motibazioa eragitean dago, zerbaiten inguruan elkarrekin komunikatu ahal izatean, hori da guk biltzen duguna".

Jarraipeneko ikastaroa

Aipatu dugun bezala sistema honekin oinarriak ezartzen dira, baina ikasle askorengatik motibazioa handitu egiten da "eta ondoren euskaltegira doaz hizkuntza ondo ikasteko asmotan".

Ikastaro honi esker hizkuntza berri batean murgiltzen dira "jakinmina sortzen zaie eta hori euskararentzat ona da". Ikasle askok gainera ondoren euren kabuz hiztegia osatzen dute "horrela solasaldi osatuagoak edukitzeko aukera ematen baitaie".

Hizkuntza eta kultura

Euskaraz ikasteaz aparte, zerbait gehiago ere bada Aisa programa. Gure herriko hizkuntza ikasten duten bitartean, gure herriko kulturen ere barnertzea du helburu programak "hau ere hitz egiteko motibazioaren parte bat izanik". Hizkuntza batean trebatu ahal izateko "beste pertsona baten beharra daukazu, eta praktika

hori gure herriko elkartetako kideekin egiteko aukera baldin badago askoz hobeto". Honen bitartez "hizkuntza ikasteaz gain herriko taldeek lantzen duten kulturen parte bat ere ezagutzen dute".

Dantza, kanta...

Lasarte-Oriako elkarten partetik erantzun ona izan dute Aisa programakoek. Momentu pixkanaka askatzen dute Tiakun Kultur Elkartearekin "Azkorteiko Erromerian parte hartu genuen". Honetaz gain, Xumela abesbatzako kide batzuk ere Danok Kideko egoitzara hurbildu ziren eta bertan "antolatu ginen kantaldi batean hartu zuten parte". Xumela abesbatza barrutik ezagutzeaz gain "eurekin euskal kantak ezagutu eta kantatu genituen".

Euskal Dantzetan trebatzeko aukera ere izan zuten David Egizabal dantza irakaslearen eskutik: "oso ondo pasa genuen Davidek proposatutako jarraitu eta euskal dantzetan arituz".

Hemendik gutxira beste erroka bat izango dute "Santa Ana Parodian parte hartuko dugu oholzta gainean".

Astean eguna...

Astean zehar lan egin ondoren guztiekin igandean erlaxatuta eta deskantsu egotea gustatzen zaigu. Aisa programako kideek aldiz, libre dute egun bakarra beste hizkuntza bat ikasten igarotzen dute. "Euren egunerokotasunetik ateratzen dituzte, elkarrekin sozial baten antzera funtzionatzen dugu".

Igandean ikastarora datozen "konten, euren burua elikatzen dutelako". Aisara datozenak "asetuta sentitu nahi dute, gauzak ikasi eta konpartitu, eta gauza berriak ezagutu".

‘Herriaren parte izan nahi dut oso-osorik’

Milagros Zamora kubatarra da eta orain dela bederatzire urte etorri zen Lasarte-Oriara bizitzera. Iritsi zenetik euskarak bere arreta deitu zuen, asko gustatu zitzaion. Interes horri irtenbidea eman nahian orain dela bi urte hasi zen euskara ikasten 'euskaldunekin euskaraz hitz egiteko aukera izan nahi dut'.



Iliuzioa eta gogekina ikasten du euskara Kubako lasarteoriar honen.

Uela bi urte murgildu zen murgildu izan iruditan munduan. Bi haur txiki ditu eta etxeko lanetan lagundu nahi die, hain juxtu horrek motibatzen du gehien Milagros euskara ikasteko.

Nolatan erabaki zenuen euskara ikasten hastea?

Euskaraz hizkuntza polita iruditzen zait eta nire arreta piztu zuen. Betidanik izan dut gogoko gauza berriak ikastea eta orain bi urte txiki ditudenez, euren etxeko lanetan laguntzeko aukera izan nahi dut. Hemen jaio dira, eta D

ereduan ikasten dute, beraz horrek motibazio berezia sortu zidan euskara ikasten hasteko.

Zertan lan egiten duzu?

Urgazle geriatrikoak naiz eta gaur egun amona bat eta ezintasa duen mutiko bat zaintzen aritzen naiz Lasarte-Oriako. Denbora asko kentzen dit lanak, horregatik, igandek bakarrik ditut libre eta Aisa programa hau igandean ematen denez primeran etorri zitzaidan. Motibazio handia behar da, eta nik badaukat.

‘Hondurasen dagoen ahizpari irakasten diot’

Brenda Palma duela bi urte heldu zen Lasarte-Oriara. Hasiara batean euskara ikastea aurreikusituz bazuen ere, krisi egoeraren ondorioz udaletxera joan zen ikastaro ez galdetzer eta bertan proposatu zituen euskara ikastarora. Gaur egun kontent dago hizkuntza honetan trebatzen joateko asmoz.



Brendak euskararekiko jakin-mina Hondurasetan duen familiari pasa dio.

Euskaraz ikastea bere helburuetako bat ez bazen ere, egun kontent eta motibatuta dago. Hondurasen bizi den bere ahizpari ere hizkuntza aitazindari honen nondik-norakoak erakusten dizkio.

Nolatan barnertu zinen Aisa programa honetan?

Oso dinamikoak. Beste ikasta-

Langabezian nengenez udaletxera jo nuen lan munduari buruzko informazio eskatzera eta orduan euskara ikasteko aukera proposatu zidaten. Hasieran nire helburua ez bazen ere, kontent nago.

Nolakoak dira klaseak?

Oso dinamikoak. Beste ikasta-

ro batzuetan egon naiz eta oso teorikoak dira, hemen kaleko hizkuntza lantzen da. Gainera klasekideekin oso ondo eramaten naiz, guztiak etorkinak gara eta elkarri laguntzen diogu.

Zer dio zure familiak? Facebook bidez ahizparekin hitz egiten dudanean gauza asko galdetzen dizkit, nirekin batera ikasten dabil. Orain lotsa alboratu eta azkartzeko gai izan behar dut.



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Kiroletako agenda

|| PALA ||

XXX. SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barreneko frontoian, finalerdia
Astelehena 18
19:00etan, Iñigo Arluziaga eta Jon Peio Artetxe - Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardaji

Asteartea 19

19:00etan, Begiristain anaiak - Unai Lizaso eta Eneko Urdanpilleta

|| TXIRRINDULARITZA ||

Larunbata 16

10:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek XXXVIII Txapel Gorri proba dute, Ordizian.
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XXI Aztiriri Igoera proban parte hartuko dute, Aztirian.

Igandea 17

10:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek Euskadiko Errepubliko txapelketa dute, Larrazubín.

|| IGERIKETA ||

Larunbata 16

10:30ean, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko Haitz Mitxelena Junior mailako Espainiako txapelketa, 200 m. tximeleta proban parte hartuko du, Palma de Mallorcan.

|| ATLETISMOA ||

Ostirala 15

23:00etan, herriko atleta talde batek G2Handiak proban parte hartuko dute, Beasainen.

Larunbata 16

16:30etatik aurrera, Jose Ramon Latorre eta Iñigo Sevillano atletak Euskadiko txapelketa parte hartuko dute, Basaurin.

18:30ean, herritar talde batek Azeri bila lasterketan partehartuko du, Hernanin.

Igandea 17

08:00etan, herriko atleta talde batek Galarleiz mendi martxan parte hartuko dute, Zallan.

|| TENISA ||

Ostirala 15

17:30etik aurrera, Lasarte-Oriako Tenis txapelketako finala eta 3. eta 4. postua erabakiko duen partida, Michelinen.

|| ZALDI LASTERKETAK ||

Igandea 17

17:30etik aurrera, 96. zaldi lasterketa denboraldiako 2. jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundia Saria jokatu da, Donostiako Hipodromoan.

Telleriatarrak gogor lehian

Urtzi Telleria hirugarren izan zen Urnietan ospatu zen Harri txikien Gipuzkoako txapelketa

Harri-jasotzaileak plazaz plaza ibiltzen dira eta gure herrian Telleriatarrak dira horren erakusle.

Maiatzaren 28an, Urtzi Telleriak, anai zaharrenak, Gipuzkoako Harri Txikien txapelketa parte hartu zuen Urnietan.

125 kiloko zilindro berria, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola jaso behar zituzten parte hartu zuten harri-jasotzaileek eta lan bakoitzaren zatitza hiru minutuko tartea izan zituzten.

Irabazlea Aimar Irigoien izan zen, guztira, 9.050 kilo jasota; Urtzik, aldiz, 7.524 kilo altxatu zuen eta txapelketako hirugarren postua eskuratu zuen.

Gorostidi Harria eta marka

Bestalde, ekainaren 6an, Aduan, Gorostidi Harria altxatzen auzartu zen, Telleriatarren txikiena, Beñat.

Hamabost urterekin 137 kiloko harri irregularra 6 alditan jaso zuen, guztien harri-durarako.

Era berean, Urtzik erronka handia izan zuen ekainaren 19an, Aian, 163 kiloko harri



Urtzi Telleriak Usurbilgo Harria hamaika alditan jaso zuen uztailaren 3an. Arg.: Noaue

errektangular zaharrarekin bost minututan marka pertsonala ezarri nahi zuen.

Eta lortu zuen. Bost altxaldi egin zizkion, bere pisuaurren, 77 kilo, bikoitza duen eta eskulekuak aldamenen artean dituen harriari.

Usurbilen Urtzi garaile

Usurbilen, berriz, Santaixabeltan 131 kiloko harri irregularrekin egin zen lehiaketan Urtzi Telleriak irabazi zuen, hamaika altxaldi egin eta gero.

Egun horretan gainera, Beñatek 100 kiloko harria

hamabi alditan jaso zuen.

Erronka berria

Hurrengo astean, uztailaren 23an, larunbatean, Mungiako Laukariz auzoan du hurrengo erronka Urtzi Telleriak, Laukarizko Harria.

Itsasotik ateratako 134 kiloko harri irregularrekin 5 minututan lan egin beharko du.

Aimar Irigoien eta beste hamabi harri-jasotzaile ere, Izeta III eta Joseba Ostolaza horien artean, saiatuko dira harria menderatzen. •



Chourraut hirugarrena izan da Munduko Kopako proban

Maialen Chourraut herriko palista irailan Bratislavan jokatu diren Slalom Olinpikoko Mundialerako prestatzen ari da buru-belarri.

Asteburuan, Alemaniako Markleeb herrian Munduko kopako hirugarren proba antolatu zen. Honetan epaileen erabaki polemikoaren ostean, Lasarte-Oriako gazteak brontzezko domina eskuratu zuen.

Lehiaketa

Maialen kanporaketetan hamargarren marka egin zuen

eta finalerako txartela, zortzigarren postuarekin lortu zuen.

Hala baina, finaleko jaitzieran sailkapeneko bigarren postua lortu zuen, 115,21 denborarekin eta 21. atea ukitu ostean.

Epaileen erabakia

Tamalez epaileek lehiaketa amaitu eta hoge minutura sailkapenean aldaketa bat egin zuten. Korinna Kuhne munduko txapelkunari akats bat kendu eta bigarren postuan jarri zuten, 114,37ko markarekin. Maialen hirugarren postuarekin geratu zuen. •

Irati Larrañaga atleta Espainiako txapelketako jauzi hirukoitzeko finalean

LOKEko Irati Larrañaga eta Gaizka Ormazabal atletak lehengo asteburuan, uztailak 9 eta 10ean, junior mailako Espainiako txapelketa lehiatu ziren Xativan.

Irati Larrañagak jauzi hirukoitzeko proban parte hartu zuen eta finalera iritsi zen.

Probako lehenengo jauzian 10,94 metro egin zituen atleta gazteak, bigarren huts egin eta hirugarren saiakeran lortu zuen finalerako sailkapena, 11,41 metroko jauziaren. Marka hori mantendu zuen finaleko txandan. Iratik zituen hiru saiakeretatik bitan huts egin zuen eta bestean 11,14 metro egin zituen. Azkenean, Larrañagak zortzigarren postua eskuratu zuen finalean.

Gaizka Ormazabalek aldiz, 400 metro hesi proban egin zuen lasterka. Sailkapenean bere txandako 5. postuan amaitu zuen 57,11 segunduko markarekin.



Irati Larrañaga gaztea Espainiako txapelketako jauzi hirukoitzeko finalean sartu zen.

Flysch trail

Bestalde, igandean, Zumaia-ko III. Flysch trail-a izan zen. Aitor Osa izan zen garaile gizonezko mailan; emakumezkoan, berriz, Ana Conde.

Bi korrikalari hauek gain, 537 lagunek hartu zuten irteera Zumaia-ko flysch eta itsas labar ondoan egiten den proba honetan eta horien

artean herritarrak egon ziren. Hauek dira batzuen denborak: Andoni Illarramendi Sagarna, 2:35:23; Gonzalo Sukunza Gorritxo, 2:40:32; Ramon Altuna, 2:54:19; Xanti Trantxe Aguirre, 3:09:12; Jose Ignacio Elvira Sanchez, 3:11:24; Juan Mari Marcos Molina, 3:12:49 eta Joseba Iparraguirre Usarralde, 3:49:37. •

Egunero

Erakusketa

JOSEVISKY, Joseba Larratxe artistaren komikien erakusketa, "Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria". Jalgin.



Ostirala, 15

Kontzertua

LAUROBA (Pop Rock) eta PEACHY JOKE (Rock) taldeen kontzertua. Abend kafe-antzo-kian, gaueko 12etan

Larunbata, 16

Karmengo Jaiak

KARMENGO AMAREN eguna dela eta, ospakizunak egongo dira goizetik. 10:00etan trikitilariak arituko dira eta 12:00etan Oriako kaperan meza.

Kontzertua

MAKULU KEN Zuzenean, Folk gauen barruan. Elostas Ostatuan, Lekunberrin, 20:00etan.



Pop-a eta rock-a euskaraz Jalgin

ESTANKONA taldearen emanaldia. Talde honek Pop eta Rock musikak lantzen ditu batez ere. Borja Estankonarekin batera, Jimmy Arrabit eta Itxaso Etxebeste musikariak ere arituko dira.

Borja Estankona eskarmentu handiko musikari gaztea dugu. Bere musika rock amerikarra eta ingelesaren oso antzekoa da, kutsu melankoliko eta bizi batekin, non bere ahotsak dena esaten duen. Adibide gisa "Okerrena Igaro Zen Jada" edo "Ur Horretatik" abestiak ditugu.

GAUR, OSTIRALA 15
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
20:00ETAN, EUSKARAZ

Igandea, 24

Azoka

SANTA ANAKO ARTISAU AZOKA egingo da. Bertan herriko hainbat artisau egongo dira. Okendo plazan, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.



Zubietako Santioak

Uztailak 23

Santioak Zubietan

19:00 Jaien hasiera, buruhandi, kantu-jira, txos-nen irekiera...; 21:00 Herri afaria; 00:00 EGAN taldearekin erromeria eta ondoren, ITZARTU taldea.

Uztailak 24

Jubilatuaren Eguna

10:30 Meza; 12:00 Herri-Kirolak; 14:00 Jubilatuen bazkaria; 18:00 Dantzaldi musikala eta ondoren, Uxue eta Lierni trikitilariak, sardina jana, piperrak eta sagardo dastatzeko aukera; 23:00 BLAKAREN kontzertua eta ondoren, LAIOTZ taldea.

Uztailak 25

Santio Eguna

09:00 Esnadeia Donostiako txistulari bandarekin; 10:30 Meza; 11:30 hamaietako eta Soka-dantza; 18:00 XIV. Trikitixa txapelketa. Ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak eta buruhandiak; 22:30 Bertso-saioa: B. Gaztelumendi, J. Labayen, A. Oizartabal "Xamoa" eta I. Manzisidor "Mantxi". Gaijartzen I. Iriarte eta ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak.

Oharrak

Kiroldegiko udako ordutegia

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00- 21:30 egongo da zabalik eta kiroldegia 07:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna 09:00-12:00 eta 17:00-21:00. Larunbatetan eta jai egunetan igerilekua 09:00-13:00; sauna itxita. Michelingo kirolgunea astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00. Larunbatetan 09:00-13:00. Igandeetan dena itxita egongo da.

Mariskadak ez du jaberik

Lasarte-Oriako ostalarien elkarteak jakin arazten du, uztailaren 2ko zozketako sariak, Itsaski saskiak ez duela irabazlerik. 62.062 zenbakia duen txartel saritua Buenetxea tabernan banatu zen. Txartel hori duen herritarra hurbildu dadila elkarteko taberna batetara.

Zabaleta baserriko errotonda eraikitzen

Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko hirigintza-garapen lanekin jarraituz, Nasipa SL enpresak Hernani Bidea eta Buenos Aires Aldapa arteko errotonda berria egiteko lanak martxan jarri zituen, Zabaleta baserriaren ondoan. Lanek ibilgailu-zirkulazioan eragina dute eta behar bezala adierazita dauden behin behineko desbideratzeekin irtenbidea ematen zaio.

Lan hauek irailean amaitzea aurreikusita dago. Lasarte-Udalak Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko udako ordutegia



Astelehenetik ostiralera 08:00 - 14:00
eta
astelehen arratsaldetan 16:00 - 20:00

Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri

TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitza

Egin dezagun bidea Gernikara

Lehenik eta behin Ierro hauen bitartez herriko alkate berria eta herriko alduaketa posible egin dutenak zoriandu nahi ditut, ezinezko zirudiena lortu baita. Aurrean duzun eronka handia da, baina ilusio, gogoz, apalatasunez eta herriaren iritziak kontuan izanda erronkari aurre egiteko moduan zaudete.

Azken hauteskunde hauek beharrezko normalizaziora hurbildu gaituzte, oraindik ezohiko egoerak

mantentzen badira ere (gure herrian pertsona batzuk ezin dute politika egin politikarako "kutsatuta" daudela-eta, eta beste batzuk politika egiteko bizkartzainak behar dituzte), baina espero dezagun oraingoan egoera hauek lehenbailehen amaiera izan dezatela.

Euskal herrian ziklo berri baten aurrean gaude. Prozesu hau itzulezinezkoa eta geldiezina da. Hauteskudentan eman diren emaitzek bultzada handia eman diete ezker abertzalearen barnean bide politikoa eta demokratiakoak soilik erabiltzearen alde kokatu zirenei. Ezker abertzaleak aukeratutako

bidean argi ikusten da borroka armatuarekin jarraitu nahi luketenak espaziorik gabe eta jokoz kanpo geratu direla. Hortaz, lehenago edo beranduago, ETAn geratzen direnei dagokie borroka armatuari bukaera ematea. Gauzak dauden moduan bukaera ordenatua guztiontzat desiragarria izanik.

Hainbeste espero dugun egun hori iritsi bitartean, norberak bere esparrutik urratsak eman ditzake normalizazio eta elkarbizitzaren bidean. Gaurko testuinguruan Lasarte-Oriako udal-txetik edo ezker abertzaletik egin daitezkeen keinuak inportanteak dira ziklo politi-

ko berri bat irekitzeko.

Zentzu honetan, alkateak Gotzok Huegun-en Geroaren Memoria izeneko eskulturen inaugurazioan esandako hitzak txalogarriak dira. Gatazka honetan parte hartu dugunok ere, isilik, geldi, zain edo begira egon beharrean prozesu honi gure ekarpena eman diezaiogegu, esaterako, Gernikan sinatutako akordioarekin bat eginez.

Aipamen soiletan geratu gabe, egin dezagun bidea Gernikara!

**Ibon Etxezarreta
Lasarte-Oriako presoa
politikoa**

Eskutitza edo kexa argitaratzeko

TXINTXARRI aldizkariko *Eskutitzen* atalean edo *Dagokionari* atalean zure iritzia, kexa edo gutun bat idatzi nahi baduzu, idatziairekin batera izen-abizenak eta nortasun argiaren zenbakia ere helarazi behar diguzue gut argitaratu ahal izateko.

Hori bai, zuen izena ez baduzue argitaratu eman nahi, ez da aterako, beste modu batera sinatu daiteke, baina erredakzioan jakin behar dugu pertsona hori nor den.

Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien iritzia eta kexak adierazteko TXINTXARRI aukeratu dutenei.

Iraia Iparragirre Futbol jokalaria

Neska futbolarien denboraldi borobila

■ Gipuzkoako Kopa irabazi dute Ostadar taldeko 16 urtetik azpiko neskek ■ Aurten desegingo den taldeak bukaera bikaina eman dio urtetako ibilbideari ■ Añorgari irabazi zion 2-1 finalean

Gipuzkoako Futbol Kopa eskuratu dute aurten Ostadar Elkarteko kadete mailako neskek lehenengo aldiz. Lauz-pabost urte daramatzate elkarrekin jokatzen eta euren ibilbideari amaiera borobila eman diote. Batzuek aurten utziko dute futbola, beste batzuek erregionaleko Ostadar taldean segituko dute eta ziur jarraituko dutenak, Errearekin entrenatzen ari den Miriam Infante, eta hurrengo denboraldian Añorgan jokatuko duten Saioa Perez eta Iraia Iparragirre dira. Azken honek eman digu 16 urtetik azpiko neskek egin duten denboraldiaren berri.

JON ALTUNA

Gipuzkoako txapeldu-nak dira Lasarte-Oriako 16 urtetik beherako neskek. Añorgari lehenengo aldiz kendu diote txapela aurten, maiatzaren 28an Andoainen 2-1 irabazita. Gainera Irungo Hiriko III. Futbol 8 Torneoa irabazi zuten ekainaren 11n eta Donosti Cup-en ere ondo jokatu dute aurreko astean: lehen bost partiduak irabazi zituzten, baina gero Norvegiako Hoybraten Stovner taldeak kanporatu zituen final laurdenetan.

Ekainaren 11n irabazi zuten Irungo futbol 8 torneo. Lehen fasean hiru norgehiagokak irabazi zituzten, 4-3 Irun Artiauren aurka, eta 2-1 Intxaardi eta Gasteiz Cup-en aurka. Final-erdian 4-1 irabazi zioten Gasteiz Cup-i eta finalean 4-2 Irun Artiaari. Golegile onena Miriam Infante izan zen.

Donosti Cup-eko lehen fasean taldeko lehenak izan ziren partidua denak irabazita (22 gol sartu zituzten eta bakarra jaso): Real JK-ri 10-0; Point Grey-ri 1-0; HSW-ri 6-1 eta Best Travel-i 5-0. Ondoren Brasilgo Futstars taldeari 3-0 irabazi zioten final zortzirene-

tan, baina Donosti Cup torneoko final erdietatik kanpo geratu ziren Noruegako Hoybraten Stovner taldearen aurka 4-1 galdu ondoren.

Norvegiarrak txapeladunorde izan ziren gero, Kanadako Tsawassen taldeko nesken aurka galdu zuten finalean 4-1. Atzerriko taldeen aurka jokatzea esperientzia polita izan da lasarteoriatarrenzat denboraldi bikaina egin eta gero.

Lagun koadrila futbolean

Iraia Iparragirrek kontatu digunez taldeak amaiera bikaina eman dio azken urtetako lanari. Taldea aurten desegingo da, askok futbola utziko dute, beraz azken urtea izugarria izan da eurentzat, urtetako ibilbideari amaiera polita emanda. Dena den, Miriam Infante, Iraia Iparragirre eta Saioa Perezek behintzat jarraitu egingo dute, azken biek Añorgako taldean.

Meritu handiagoa du garai-penak, taldeko nesken ustez, ez dutelako Añorgak bezala asko entrenatzen eta ez dutelako prestaketa fisiko gogorrik egiten, "gehienbat talde giroari esker irabazi dugu, gure arteko adiskidetasunari esker".

Iraia Iparragirre erdilariak kontatu digunez, bera orain



Ezusteko handia eman zioten Añorgari maiatzaren 28 Andoainen jokatu zen finalean.

delat bost urte hasi zen futbolekin jokatzen Ostadarren eta gero hasi ziren bere koadrilako beste lagun batzuek: "Koadrilakoak animatu nituen, baina lehenengoa ni izan nintzen..."

Final bikaina

Añorga izan da azken urteotan lasarteoriatarren aurkaririk gogorrena, aurten ere denboraldian zehar bi aldiz galdu dute euren aurka, baina partidurik garrantzitsuenetan, Gipuzkoako Kopako finalean 2-1 nagusitu ziren. Ostadar taldean, Ane Matxain; Maider Galardi; Nagore Elola; Miriam Ruiz (69 Amaia Mendiluze) Janire Arroio; Adriana Caicedo (37 Maria Grana-dos), Iraia Iparragirre; Miriam Infante; Janire Agirrebeña (43 Irati Bernardino) Saioa Perez (67 Kiara Tobajas) eta Amaia Macias-ek jokatu zuten.

Lehen zati kaxkarra egin omen zuten, urduri omen ziren, baina inork espero ez zuten arren bigarren zatian indarberritu eta garaipena lortu zuten. "Finala gainera beti irabazten digun Añorgaren kontra zen. Lau urte hauetan jokatu ditugun hamar bat partiduetatik behin bakarrik irabazi diegu, kokilduta ginen. Baloia oso ondo

mugitzen dute, eta lehen zatian guk korrika besterik ez genuen egin, nekatu, baina ez zitzaigun ezer ateratzen" kontatu digu Iraia Iparragirrek.

Lehen zati horretan gol bat sartu zuen Añorgak, baina atsedendian Javi Soltxagak Kopa beraiantzat zela esan zien, mentalitatez aldatzeko, eskatu. Konfidantzarekin atera ziren bigarren zati horretan eta bi gol sartu zituzten Miriam Infante eta Janire Arroyok.

Hainbeste urtean txapeladun izan den Añorgari irabaztea, "handia da" Iraiairen iritziz: "Alde handia dago guk taldean dugun txantxa eta katxondeoaren eta beraiek duten seriotasunaren artean, ikaragarria da". Astean bi aldiz entrenatu dute, baina ez oso serio. Iraiak aitor-tu digu Ostadarren hasi zen arte, mutilekin jokatzen zuela Garaikoetxean.

Futbolari izatea amets

Iraia Iparragirre berak eta Saioa Perez-ek datorren urtean gazte mailako Añorga taldean jokatuko dute. Aurten biek egin dute Errealean proba bat, "gure jokoa eta maila ikusteko": hiru astetan hiru entrenamendu egin zituzten eta Araban partidua jokatu dute. Iraiairen iritziz oso esperientzia polita izan zen. Errealean jokatzea amets bat da berarentzat, "nahiko nuke, txiki txikitatik daukat buruan hori".

Taldekide izan duen Miriam Infante ari da Errealean eta Espainiako selekzioarekin jokatzea ere sarri joaten da. Jada lehen mailako Ligan jokatuko du Miriam-ek. Honen abiadura nabarmendu du Iraiak. "Etxean asko lagundu diote gainera, zaletasun handia dute. Bere anaiak, Real Union-en jokatzen du". •



Udako Txokoak 2011

ABUZZURAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALK

Izena emateko azken eguna uztailaren 22a

Garaikoetxean
10:00-13:00

Abuztuaren
1etik 26ra

Ttakun Geltoki kalea 4. • Tel.: 943 371448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com